

k:

Kultura

Euskarazko zinea hauspotzearekin batera, bi egitasmo berrik gorpuztuta ikusiko dituzte laster haien asmoak; «Izarren argia» batetik, eta «Zigortzaileak», bestetik. Lehenengoak, Mikel Ruedak zuzenduta, 36ko Gerra du hizpide, zehazki, Saturrarango emakumezkoen kartzelan jazotakoak biltzen ditu emakumeen optika baliatuta. Bigarrenak, Arantza Ibarra eta Alfonso Arandiaren gidaritzapean, haurren arteko *bullying* kasuak eramango ditu pantailara.

«Izarren argia» eta «Zigortzaileak», euskarazko zinearen apustu berriak

A. KAMIO-A. BILBAO | AZPEITIA-BILBO

36ko Gerrak Euskal Herrian sortu kalteak zinemaranzko bidea hartuko du berriro "Izarren argia" filmearen burutzearekin. Indar eskuindarrek eragindako sarraskiak aski ezagunak badira

ere, Mikel Rueda zuzendari gazteak ikuspegi desberdina lortu nahi du bere lehenengo luzemetraiarekin. Zehazki, Saturrarango bainuetxe zena -Azpeitiako Esklabetako mojen komentu izandakoan lokalizatu dutena- emakumeen espespe bihurtu

zuteneko garaiak eramán ditu pantailaren aurrera eta «optika guztiz femeninoa» erantsi dio euskara hutsean grabatzen ari diren lanari. Beharrerako aktore erre parto mardula bildu du: Barbara Goenaga protagonista gisa hartuta, Clara Badiola, Tere-

Fitxa

Zuzendaritza eta gidogintza: Mikel Rueda.
Produktorea: E. Barinaga (Baleuko).
Aktoreak: Barbara Goenaga, Itziar Lazkano, Klara Badiola, Estibalitz Gabilondo, Amaia Lizarralde, Sara Cozar.

sa Calo, Itziar Ituño, Sara Cozar, Estibalitz Gabilondo, Amaia Lizarralde, Aitor Beltran, Itziar Lazkano, Amagoia Lauzirika eta Itziar Insaustik Saturrarango kartzela hartan ehunka emakume bizi izan zuten infernura bidaiatu dute.

Itxaropena

Saturrarango bainuetxea, emakumezkoen lehenengo espespe izan zen. Mesedetako Amaren Ordenako mojen zaintzapeko kartzela hura, Najera Vallejo komandante frankistaren ideologiaren gidaritzapean izan zuten urte luzez. Komandante horren ustez, komunismoa errotik desagertarazteko era bakarra emakume ezkertiarrei haien seme-alabak kendu eta hauek erregimenarekin bat zetozen familietan txertatzea zen. 57 emakume izan ziren haien seme-alabengandik banatuak, eta beraien bizipenak dira filmearen mami nagusia.

Victoria (Barbara Goenaga) protagonista nagusia den arren, «istorio korala» dela iritzi dio Ruedak. «Victoriaren bizitza historiaren gidaria da baina, finean, kontakizun orokorra da», esan zuen. «Itxaropenari buruz hitz egiten duen lana da, emakumearen ikuspegitik fokatutakoa. Egoera ilun batean, itxaropena aurrera jarraitzeko aukera bakarra deneko bizipen sorta biltzen da, esperantzarik gabe ez baitago bizitzetik».

Goenagaren hitzetan, «Victoriak garai bateko emakumea irudikatzen du. Espespera iristen da bere kartzelaratzaren arrazoia jakin gabe. Bera irakaslea da, eta senarra errepublikanoa zen eta hil egin zuten. Sei urte igarotzen ditu espespean, semea kentzen diote eta bere helburua semea berriz ikusi arte zain egotea da. Egoera horretan gero eta emakume gogorrago bilakatzen da, nahiz eta hasiera batean pertsona batek jasan ezingo zituen egoerak bizitzen dituen, guztia bere semea berriro ikustearren».

Eduardo Barinaga Baleukoko ekoizleak azaldu zuenez, «ema-



Goian, Mikel Rueda zuzendari aktore guztiekin eta, behean, Azpeitian egiten ari diren filmaketaren lehenengo irudiak.

Andoni CANELLADA | ARGAZKI PRESS

kumeen askatasun oihua da» filmeak erakusten duena. Protagonistak espetxe hartan sartu zituzten, askok ez zekiten zergatik eraman zituzten hara, beraien seme-alabengandik banandu zituzten eta, hori gutxi balitz, «burdel inprobisatu» batean bilakatu zen. Bere hitzetan, lan hau «errebeldia, kritikoa eta aldarrikatzailea» da, «espetxetik hartatik igaro ziren pertsonen lekukotzekin amaitzen delako, historiako kapitulu hartan gertatutakoa salatu nahi delako eta emakumearen papera aldarrikatzen duelako subjektu aktibo bezala».

«Pantera zuria»

Saturrarangoa emakumezkoen espetxea zenez, Francoren Armadak ez zuen kartzela barrutik kontrolatzen, beraz, Mesedetako Amaren Ordenako mojak arduratzen ziren kudeaketa guztiaz, haiek ziren presoainak. Bertako zuzendaria «Pantera Zuria» (Itziar Lazkano) ezizenarekin ezagutzen zen, kanpotik zuriz jantzita joaten bazen ere, arima guztiz beltza zuela esaten zelako. Lazkanok «izugarri atsegin» du bere papera, «istorioko maltzurrena» delako. «Nire pertsonaiaren lana Najera Vallejo komandantearen agindua betearaztea da eta ados ala kontrari egon daiteke, baina ezingo ditu bere sentipenak azaleratu, izan ditzakeen zalantzak agerian utzi», esan zuen.

Ruedak filmaketa hasi aurretik aurkitu zuen arazoetako bat erlijioarena izan zen. «Ez dut erlijioarekiko kritika bat egin nahi, baina garai hartako Elizaren ordenamentua nolakoa zen erakutsi nahi dut, abaniko osoa agerian utzita, benetan gaizki portatu ziren mojetatik hasita, presoak ahalik eta ondoen tratatzen zituztenetaraino. Saturraranen bertan, moja askok abitua utzi zuten espetxean gertatu zenerarekin ados ez zeudelako», gehitu zuen.

36ko Gerraren inguruan egiten diren filmeetan afusilamenduak ohikoak diren arren, kasu honetan ez dira nagusi izango. Hala ere, emakume haiek bultzatzen dituzten muturreko egoerak agerian geratuko dira. «Zigor jakin batek heriotzera eraman zaitzake. Ez zegoen afusilamendu zuzenik, baina egoera bultzatzen ziren, adibidez, askori janaria kendu eta gosez hiltzen uzten zituzten». «Historiak dienez araberak jarraitu zuten, Mutrikuko eta Ondarroako bizilagunek janaria ematen zieten presoekin, baina mojek hartzen zituzten elikagai haiek ondoren merkatu beltzean saldu eta dirua lortzeko, emakumeak eta haurrak hiltzen ziren bitartean».

«Izarren argia»-ren filmaketa, 2,2 milioi euroko aurrekontuarekin, sei astez luzatuko da, eta Azpeitia, Hondarribia eta Artikutza artean burutuko da erro-dajea. Zuzendariaren asmoa 2010eko Donostiako Zinemaldian aurkeztu eta aretoetan eskaintzea izango da.



Estibaliz Sarasolaren atzean, Peio Madariaga, Martin Gandiaga, Nikola Zalduegi, Amaia Aberasturi, Asier Vegas eta Andoni Delarigne. Marisol RAMIREZ | A. P.

«ZIGORTZAILEAK» GRABATZEN HASTEKO ILUSIOZ GAINEZKA DIRA EUSKAL HERRIKO BAZTER EZBERDINETATIK BILDUTAKO GAZTETXOAK

Iragan apiriletik ekainera, mila eta berrehun gaztetxotik gora izan dira Euskal Herri osoan zehar «Zigortzaileak» filmean parte hartzeko burutu diren kastingetan parte hartu dutenak, iragan apiriletik ekainera. Behin aukeraketak burututa –eta ikasturtea finitu ostean–, zazpi gaztetxo dira datorren astelehenean, ekainaren 29an, filma grabatzen hasiko direnak, Portugaleten.

Arantza Ibarrek idatzitako gidoia du oinarri «Zigortzaileak» pelikula. Ondarrutarrak, batez ere publizitate arloan lan egin duen arren, argitaratuak zeuzkan gaztetxoentzako ipuin eta marrazkiak –«Saiku detektibea, gozoki-lapurren bila» adibidez–, eta «Zigortzaileak» idazteaz gain zuzendu egingo du, Alfonso Arandiarekin elkarlanean. «Hamar bat urte daramatzat gidoiak idazten, batez ere gaztetxoentzat», dio Ibarrek. «Fantasia eta magia dut gustuko eta ematen du nagusitzean ahaztu egiten ditugula kontu hauek, umeen gauzak balira bezala. Nik ez dut umeentzat idazten, niri gustatzen zaizkidalako baino, ume handi bat naiz, kontua egizu». Aurki gauzatuko duten gidoia orain hiru urte inguru hasi zen idazten, eta behin ekoizleari gustatu zitzaionean, «berridatzi eta berridatzi aritu naiz», lana pedagogo, psikologo eta beste esku askotik pasa baita. Azken finean, «gaiaren arabera gauza asko hartu behar dira kontutan», eta hori izan da lanik zailena, «gidoia behin eta berridatzea».

Grabaketei datorren astelehenean ekin gozuko diete. Gaztetxoekin ari direnez, «badakigu beraien gainean egon beharko dugula, asper ez daitezen –erraz gogaitzen baitira–. Esan eta esan gabiltza lanean ari garela eta eskenak askotan errepikatu beharko ditugula». Gaztetxoekin lanean kontuz ibili beharra dago, «egia esan eta dena destribatzen dute», baina aldi berean «sekulako freskotetasun eta naturaltasuna dute». Gainera, Ibarra beraiekin egotera ohituta dago: «ikastoletan ibili izan naiz, ipuinak idatzi eta marrazkiak egin».

Pelikulak ikaskideen arteko tratu txarrrak edo bullying kontuak jorratzen ditu. Honela kontatu digu, gutxi gorabehera, lanaren egileak: «Lagun gaizto batzuk, asper asper eginda daudenak, ikaskideak jutzen eta txantxak egiten ari dira beti. Eta Leire ikaskideari esker, neska mutiko talde bat batu eta Zigortzaileak elkarteak eratu du, zirikatzaileei aurre egin eta hauek zigortzeko, superheroien gisara eta modu dibertigarrian».

Bi neska eta bost mutil

Antzezleak hautatzeko orduan, zalaparta ugari izan da, milaka hautagai agertu baitira, baina «gure ustean onenak hartu ditugu, benetan primerako antzezleak». Izan ere, «badirudi Ibarrek beraien pentsatu zuela, gidoia idaztean», esan digute pelikularen arduradunek, pozik.

Haukeratutako zazpi artean, bost mutil eta bi neska dira, guztiak Bizkaitarrak Andoni Delarigne baxenafarra izan ezik. Bastidarra da guztien artean esperientzia gehien daukana, hiru telefilmekin parte hartu baitu, eta gainera, bere baitueraz grabatuko den pelikulan bere hizkera edo euskalkia mantenduko duen bakarra, berezitasun moduan.

Zigortzaile taldea eratu eta pelikularen narratzailea izango den Leireren papera berriz, Gaitegiz-Arteagako Amaia Aberasturik beteko du. Atzo urduri zegoen neskatila, oraindik azterketa bat egin beharra zuen-eta. Izan ere, dagoeneko eskolak bukatu badituzte ere, badaramatzate aste pareka entseguak egiten, eta gizarajoei

«dena elkartu zaie batera». Estibaliz Sarasola bilbotarra da «Zigortzaileak» filmeko beste neska, eta bere esanetan «lan handia eta nekagarria» izan da gidoia ikastea, «astean lautan» izan baita entseguetan. Pozik da halere, kamera atzean egoteko aukera izan duela-eta, Peio Madariaga, Martin Gandiaga eta Asier Vegas bezala –hautatu dituztela ezin sinestuta dabilta–. Peio lezamarra da, eta adarra jo digu behin pelikula bukatuta neska lagunarekin zinemara joango dela esanda. «Handitan aktorea izan nahi dut nik, eta Hollywoodera joan» esan digu berak, irrifartsu.

Asier bilbotarra eta Martin markinarra «amak esanda joan ziren kastingera, frogatu egin eta lagunak egitera». Bilbotarraren ustez «inprobisatzea da lanik zailena», baina pozik dago, amak papera bikain betetzen duela esan baitio: «gainera, gaiztoa naiz, bai pelikulan bai errealitatean», esan digu bihurri aurpegiarekin. Gaiztoen artean dago «ilusio handia» duen Martinek ere. Gidoia «gustatzen zaidalako» ikasi omen du, eta «ondo ahozkatzea» omen du lanik zailena –«Martin, ipini arkatza ahoan», dio berak–. Politena lagunartean lan egitea. Markinarriari amak esaten omen dio aktore ona dela, «anaiarekin jolasean plantak egiten ditudanean», eta ez zaio inporta aurten opor laburragoak izatea, «nahiago dut pelikula». Laburmetrietan esperientzia duen Nikola Zalduegi bilbotarrak osatzen du zazpikotea.

Zazpi hauez gain, ehun bat gaztetxok hartuko du parte pelikulan. Gurasoen paperean berriz, aurpegi ezagunak ikusiko ditugu: Ane Igartiburu, Xabier Elorriaga, Ainhoa Jauregi, Carlos Sobera, Gurutze Beitia... baita Rafael Amargo ere, euskaraz gainera. «Komedia tonua erabiliko dugu guresoekin, umeak gurasoak modu ezberdinean ikusten dituztelako». Dena ondo joanez gero, gabon buelta edo datorren urtarrilerako pantailetan beharko luke Portugalete inguruetan grabatuko duten «Zigortzaileak» gaztetxoekin. Anartz BILBAO

Fitxa

Zuzendaritza: Arantza Ibarra eta Alfonso Arandia.
Gidoia: Arantza Ibarra.
Antzezleak: Amaia Aberasturi + Andoni Delarigne + Estibaliz Sarasola + Martin Gandiaga + Peio Madariaga + Asier Vegas eta Nikola Zalduegi.
Ekoizlea: Jose Maria Lara.
Estreinaldia: Datorren urtarrilerako aurreikusia.